

ZORTZI UNIBERTSO, ZORTZI IDAZLE**1. Sarrerakoak**

2002. eta 2003. urtean, bi liburu interesgarri bezain deigarri neureganatu nituen: bata, Hasier Etxeberriaren *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* izan zen eta, bestea, Anna Caballek atonduriko, *Lo mío es escribir*. Batean, bost euskal idazle, bost euskal idazle gizonezko aurkezten zitzaizkigun, gaur egungo euskal literaturaren lehen mailako idazletzat jo direnak. Bestean, azken 50 urteotan espainolez idatzi duten (Espainian nahiz Latinoamerikan) emakumeen literatura zen aztergai. Bigarren liburu honetan, besteak beste, antologatutako emakumezko idazleek nazioartean lortu duten arrakasta azpimarratzen zen, idazle on balioa aupatzeko, nolabait.

Hasier Etxeberriaren liburua irakurri ostean, askori eta modu inkontziente batez, liburuan aipatzen ziren bost idazle horien artean emakumezkoen ez ote zen sartzen galdera etorri zitzaigun burura. Anna Caballeren liburua irakurri ondoren, ostera, emakumezkoen literaturaren balioez hitz egin ahal izateko, derrigorrez nazioartean arrakasta lortu behar ote den galdetu nion neure buruari. Edo beste era batera esanda, emakumezkoek idatzitako literaturaz hitz egin ahal izateko, oraindik ere, nola edo hala, justifikatu egin behar ote den.